

## **DEBAGOIENeko IV. POSTRE LEHIAKETA**

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapenerako Elkarateak eta Arrasateko Udalak bigarrenez antolatu dute postre lehiaketa hau, Debagoieneko IV Postre Lehiaketa, XXX. Jardunaldi Gastronomikoen baitan, 2017ko azaroaren 17ko Arrasateko Baserritarren azoka bereziarekin batera, bertako gastronomiaren, eta garaiko produktuen kontsumoaren sustapena egiteko helburuarekin.

### **LEHIAKETAREN OINARRIAK:**

#### **1. Postreen ezaugarriak:**

- Postreak gutxienez honako osagaietatik bi eduki beharko ditu: bertako urrak, intxaurrak, gaztainak, sagarrak, kalabaza edo/eta ezia
- Norberak egindako postreak izan behar dira.

#### **2. Parte hartzeko baldintzak, izena emateko era, eta sariak:**

##### **Parte hartzeko baldintzak:**

- Lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar da, oinarri hauetan zehazten den moduan.
- Parte-hartzaileak ezin izango dira gozogile edo sukaldari profesionalak izan.
- Izenemate bakoitzeko postre bakarra onartuko da.

##### **Sariak:**

- Lehenengo saria: OTARRA + AFARIA + IBAI ARTEko bonoa

(Bertako produktuekin osatutako otarra + Jardunaldi gastronomikotan parte hartzen duten jatetxe batean bi pertsonentzako afaria + BONO OPARIA 100 eurokoa Ibaiarteko komertzioetan erabiltzeko).

- Bigarrenengo saria: OTARRA + AFARIA.

(Bertako produktuekin osatutako otarra + Jardunaldi gastronomikoetan parte hartzen duten jatetxe batean bi pertsonentzako afaria)

- Hirugarren saria: OTARRA.

(Bertako produktuekin osatutako otarra)

### **3. Izena emateko era eta epea**

Izena emateko azkenengo eguna azaroaren 5a, astelehena, izango da. Izena emateko, helbide honetara jo behar da: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus). Galderak eta Informazio gehiago eskuratzeko, 943796463 telefonoan.

### **4. Postreak eta errezetak aurkezteko era:**

- Lehiaketaren egunean, azaroaren 17an, larunbata, goizeko 11etan Arrasateko Sebero Altube Plazan aurkeztuko dira postreak. Postrearekin batera, bere errezeta eta egilearen datu pertsonalak aurkeztuko dira gutun-azal itxi batean (izena, telefonoa, helbidea eta e-mail helbidea).
- Postrearen tamaina 6-8 erraziokoa izango da.
- Postreak bertan utziko dira, lehiaketaren ostean dastatzen emateko.
- Errezetak honako datuak bilduko ditu:
  - Postrearen izena.
  - Osagaien zerrenda eta bertako produktuen jatorria
  - Elaborazio prozesuaren azalpena.

### **5. Epaimahaia:**

Epaimahaia honela egongo da osatuta:

- Sukaldariak.
- Udaleko ordezkari bat.
- Gozogileak.

### **6. Postreak baloratzeko irizpideak:**

Gehienez 50 puntu emango zaizkio postre bakoitzari, irizpide hauen arabera:

- Zaporea (20 punturaino)

- Aurkezteko era eta itxura (10 punturaino)
- Originaltasuna (20 punturaino)

## **7. Lehiaketaren zabalpena**

Antolatzaileei baimentzen zaie lehiaketan parte hartzen duten pertsonen izenak eta aurkezten dituzten errezetak argitaratzeko, ekimenaren sustapena egiteko.